

Misioak
aldatzen
zaitu

17 Martxoa
Marzo 2019



la Misión
te
cambia



elizbarrutietako misioak
misiones diocesanas vascas

Misioak
aldatzen
zaitu

*La Misión
te cambia*




Lur onizateko deia jaso dugu

...Eta misioak
loratzea
dakarkizu,
aldatu egiten
zaitu eta bizia
ematen dizu



MISIOA, JESUSEN JAINKOAREKIN BAT EGITEA DA





ELIZBARRUTIAK MISIONES DIOCESANAS VASCAS



**Bera irten zaigu bidera
eta ikasle misiolari bezala
bere atzetik jarraitzeko
esan digu.**



ELIZBARRUTETAKO MISIOAK MISIONES DIOCESANAS VASCAS

**Gure bihotzean bizitzen jarri zen,
ezagutzeko eta maitatzeko era
berria sortzen du guregan eta
horrek Jesus Jaunaren
lekukotasuna munduko azken
mugetaraino zabaltzera bultzatzen
gaitu.**

MISIOA, BAIETZ ESATEA DA




ELIZBARRUTIETAKO MISIOAK MISIONES DIOCESANAS VASCAS

ERREINUA ERAIKITZERA BIDALTZEA DA MISIOA

Lukas 4, 18-19

Jaunaren espiritua nire
gainean dago, berak bainau
sagaratu behartsuei berri
ona adierazteko;
Berak nau bidali gatibuei
askatasuna eta itsuei
ikusmena hots egitera



**eta zapalduak
askatzera,
Jaunak
onginahia
azalduko duen
urtea hots
egitera”
(Lk 4, 18-19).**



BIZITZA, MISIOA DA; MISIOA, BIZITZA DA

**Frantzisko Aita Santuak bizitza misiotzat
hartzeko diosku:**

**“Norbere baitatik atera, besteari bidera
irteteko eta beste hori maitatzeko eta
zerbitzatzeko. Horrek egundoko poztasuna
eragiten du.”**

MISIOAK ALDATU EGITEN ZAITU

**Bidera atera eta
besteen zerbitzari
izateko prest
gaudenean, bizia
hedatu egiten da eta
argitsu bihurtzen.**

**Behartsuek aurpegia
dute eta horrek
zuzentasun eta
senidetasunaren alde
jardutera bultzatzen
gaitu.**



MISIOAK ALDATU EGITEN ZAITU

Hemen eta orain
konprometitzen garen
heinean, gure bizitza
aldatu egiten da eta
errealitatea aldatu egiten
du. Misioak sakon aldatzen
gaitu, edonon gaudela ere.



Kidenda



EGUN BERRIA ARGITUKO DU

Egun berria argituko du eta bizitzea ez da bizkarrak okertuko eta bihotzak itoko dituen zama astuna izango; egun berria argituko du eta betetasunezko esperientzia harrigarria izango da jatorri, kolore, herrialde edo erlijio guztietako gizon eta emakumeentzat.

Egun berria argituko du eta berdintasuna ez da zalantzan jarriko, ez da diskriminazio positiborik behar izango, edozein izanda ere pertsonen kultura, gizarte baldintza, aberria, aberastasuna edo sexua.

Egun berria argituko du eta mugak desagertu egingo dira, justizia loratu egingo da eta gizaki guztiok kontrolik, txartelik gabe hara eta hona ibiltzeko aukera izango dugu, etxean egongo bagina bezala.

Egun berria argituko du eta senidetasuna izango da herritartasun-, duintasun- eta errespetu-gutunik onena eta gizon eta emakume guztiei begirunea izango zaie.

Egun berria argituko du eta bizikide izango gara, elkarrizketan jardun eta elkar aberastuko dugu, maitatu, erdibanatu eta elkar kritikatu ahal izango dugu, amets eta lan egingo dugu, abestu eta desberdinak izango gara, inor mahaitik, bihotzetik eta historiatik kanporatu gabe.

Jauna, laster argituko du egun berriak, bakarrik graziazko hitzak hotz egiten baditugu!

Dagoeneko iragartzen da!

Floren Ulibarri

Misioak
aldatzen
zaitu

17 Martxoa
Marzo 2019



la Misión
te
cambia



elizbarrutietako misioak
misiones diocesanas vascas